

## Argazkien jabeak

**N**ik eskolatik gordetako argazki gardenetako bat hauxe: Gizarteko irakaslea, M., trazu lodi eta karrankariz arbelean  $3+4=?$  idazten. M., Eusko Alkartasuneko zen, nahiz eta artean ez genuen ez Gizarte eta Eusko Alkartasuna hitzen esanahia ulertzen.

Lehen eskola eguna zen, eta ekuazio harrigarria arbelean utzia, irakaslea jiratu zen, begiak odolduta, eta  $3+4$  zenbat zen ote genekin egin zigun oihu. Munstro fama zuen irakasleak eta koroan erantzun genuen 7. Irakasleak, klariona borrazteko tresna habaila bilakatuta, hondoko hormaren kontra lehertu zuen eta atzeko lerroan eseritako ume bati eskatu zion bueltan ekartzeko. Kuidado handiz ezabatu zuen galdera ikurra, eta berriro guregana jiratuta, ahotsa gozotuta, galdera egin zuen atzera. Inor ez zen erantzutera ausartu. Orduan berak, hortzak dardarka utzi zizkigun zarata atereaz klarionarekin,  $3+4=1$  idatzi zuen eta guri begira gelditu zen misterio gogoz: “Euskal Herria:  $3+4=1$ ”. Klarionaren gainetik hautsa uxatu zuen pistola muturretik bolbora kea nola, eta “Gaurkoz nahikoa duzue, zoazte patiora” esan zigun asperduraz.

Guk ederki ikasi genuen lezioa. Hain ongi, ezen eta handik ez askora, irakasleari gailendu zitzaizkion ikasle pedante bilakatu-ta, kaletik heltzen ziren aldarri guztiekin bat egiten hasi ginen, greba zein manifestazio formatuan. Baina matematika kalera eramatea ez zitzaien hain gustuko gure irakasleei, eta haien gudanako jazarpena gehitu behar izan genion polizienari.

Behin, ertzain bat bideokamera bat muturrean ikusi genuen, eta ez zen bodarik inguruan ageri. Guk pipak jaten eta prozesioan jarraitu genuen Zumarditik, akaso ilea apur bat atondu eta gero. Gizon hark ordea grabatzen jarraitu zuen, eta nago euskal neoerrea-



DANI BLANCO

Eider Rodriguez

Agirre

Urkiza

lismoa bera bezalakoek abiatu zutela: plano zabal amaigabeak, eduki soziala, kaletarrak aktore. Ez dago inolako jairik, ospakizunik, emanaldirik, inolako gertakaririk kalean barna abiatutako martxa haiek bezain beste filmatutakorik. Boterearen jakin-gosea bulimikoa da gure  $4+3$  honetan. (Zein bideoteka gizentzen ote dute zintok orain? Inork ikusi

al ditu behin ere?).

Batzuen espantua gorabehera, ez da berria polizien kerentzia irudiekiko.

Ares entzun dut albistea ematen: datozen hilabeteotan, Ertzaintza Baionan izango da. Askotxo entzun dut Ares aspaldion, bere indarkeriazko hitzak mikrofonoen aurrean gonbitoka. Gure M. irakasle munstroarentzat akaso pozgarria litzateke berria, sailburuak herriaren integritatea berreskuratu nahi baitu EAE ditxosozkotik Euskal Herri osora zabalduz bere ganadutegia. Ezin esan keinu abertzalea ez denik berea. Baina hara non, Ortuzarri iruditu ez, eta zergatik sartuko den orain Ertzaintza Frantziako Errepublikan egin dio galde, haserre plantan, bestalde. Frantziako Errepublika, Ortuzar jauna? EITBko zuzendari ibili zen garaian ez al zuen ikasi Iparralde ere Euskal Herria zela? Akaso ETB2 begiratzen ariko zen, Iparraldeak *orena* ere ez duen huraxe.

*Quién es quién* jokoa ere gordetzen dut memorian, buru gogorrekoa naizenez, eta agian handik jaso genuela batari eta besteari dagokion nortasuna bilatzeko grina, eta M. irakaslea eta Ares eta Ortuzar, guztiak dabilzala ileordea aldatuz eta bibotea bata besteari pasaz, jolasean beti, galtzeko ezer ez izateak ematen duen poz eta inpunitate delirantearekin.

Eta argazkiak hain kotizatuak dauden garaio-tan, ez ote den garaia iritsi nirea ere orrialde honetatik kendu eta bere jabeari itzultzeko. Berandu baino lehen. ■

Ares entzun dut albistea ematen: datozen hilabeteotan,  
Ertzaintza Baionan izango da. Askotxo entzun dut  
Ares aspaldion, bere indarkeriazko hitzak  
mikrofonoen aurrean gonbitoka